

# Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez

PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*

Euskara galdu den Nafarroako alderdi zabalean toponimia lanabes ezinutzizkoa da -maiz besterik ez dugu eta- gure hizkuntzaren tokian tokiko nolakoa ikertzeko; hizkuntza oraindik bizirik dagoen ibarretan ere leku-izenek biziek eta historikoek, biek bertako hizkeraren historia neurri batean aztertzeke aukera ematen digute. Konparaziorako, Nafarroako mendebaldeko bailaretan Araban, Gipuzkoako zenbait tokitan eta Bizkaian aurkitzen dugun -a + a > -ea (> -ia...) bokal disimilazio bera aurkitzen dugu. Hau euskara bizirik dagoen Burundako euskaran erraz da opatzen, baina isoglosa Urbasa mendia beheiti gaintitu eta Ameskoa eta Lanaraino iristen zela ez da horren ezaguna, azken haran hauetako euskara mendebaldekoa zela su(s)matzen baguen ere. Toki-izen bakan batzuek, ordea, argi eta garbi erakusten digute zenbait herritan behintzat aipatu disimilazio hori burutzen zela. Zilegi beki-gu hemen geure burua aipatzea<sup>1</sup>:

“-A-z bukatzen diren hitzek artikulua hartzean -ea (> -ia) moduko disimilazioa pairatzen zuten Ameskoagoiengan, Ameskoabarrenean, Lanan, eta agian Allingo herriren batean eta Ega ibarreko besteren batean. Kontua da toponimian, espezifikoa generiko batez lagundurik ageri delarik, anitzetan azken honen ez duela mugatzailerik hartzen<sup>2</sup>, eta hau dela eta, aztergai dugun nafar men-

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

1. “Nafarroako euskara galduaren inguruko oharrak”, lan argitaragabea.

2. Cf., adibidez, Etxarri-Aranazko *Altxorroko zulo* leku-izena, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM hemendik aitzina)*, XII, 32, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992az geroztik, edo Uharte-Arakilgo *Arregiko labetto, Arregiko pulpitu* (ib., 130).

debaldean ere frankotan -a aurkituko dugu espero genuen -ea-ren ordeztan, esan bezala honelakoetan mugatzailea falta baita maiz. Ditugun adibideak hauek dira: *Aranazco muguea* (Larragoa?, Eulate?, 1633), *Errubico esquinia* (Larragoa, 1688), *Sarrico perrea* (Larragoa, 1691), *Bustico errequia*, *Bustico errequea* (Eulate, 1687), *Yaongosendea* (San Martin, 1688), *Picotea* (< pikota + -a. Galbarra, 1689, Bitoria, 1696) eta agian *Ripa beguea* (Murieta, 1692), dirudien bezala *erripa* eta *bega* (< vega)-ren elkarketaren fruitu bada, eta ez adibidez *erripa* eta *begia*-rena<sup>3</sup>.

Hauei Luciano Lapuentek Ameskoan biltzen duen *Irumuguea* gaineratuko beharko zaie<sup>4</sup>, bai eta, orobat, **a + a > ea** egitearen ondorioetako jo behar bide diren **landara** eta **udara** izenez osaturikako toki-izenak: *Ynchaur landara* (Gastiain, 1685, 1686), *Udaragogorra* (Gastiain, 1686), *Udara Macurra* (Muneta, 1668) eta *Udaraquicuna* (Eultz, 1574), honek bere baitan *udara* osagaia badu bederen<sup>5</sup>.

Jakina denez, Burundan ere gertatzen da asimilazio hau, eta Araban ere bai, toponimian eta testuetan ikus daitekeenez<sup>6</sup>

Artikulua utzi gabe, testuek 1780rako<sup>7</sup> eta hizkera biziak gure egunotan<sup>8</sup> erakusten diguten zaraitzuerazko -a + a > -ara pausoa toponimian 1610ean

3. Toponimian arrunta da gorputz atalen izenak metaforikoki erabiliak aurkitzea: *ahoa*, *bizkarra*, *burua*, *lepoa*, *musua*... eta beste, baina *begi* ez da sobera azaltzen, *Iturbegi* bezalako izenetan ez bada (cf., dena den, Azteraingo *Legarreta Zariquegui beguia*, Jimeno Jurio, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1986, 117, eta *Orobequia*, Izurtzu, 1577 [cf., orobat, *Iturbegi*-rekin zerikusia bide duen Aintzioako 1799ko *Urvequia* toponimoa, PR-Auritz (Aurizko protokoloak), 42. k.]). Nolanahi ere, ez dugu uste, Iñaki Seguiolak dioenaren kontra (ikus "Notas de toponimia amescoana", *ASJU*, XX-1, 1987, 265-275), *Gomizaogaina*-n eta *Gomizaba*-n aho dugunik, -ano-rekin akitutako antroponimo batean oinarritu toki-izen baten euskarazko aldaera baizik. Bukaera hau dela eta, ez gaude Zuazorekin ados Arabako ekialdean, Nafarroako mugatik gertu, -ain atzizkia ugarituz doala dioenean, mendebalderagoko -ano-ren kaltetan, Nafarroan -ain nagusia edo dela iradokitzen duenarik (ikus AE ["Arabako euskara", *ASJU*, XXIII-1, 1989, 3-48], 39-40).

Arabari dagokionez egia den ez dakigu, ez baitugu aztertu, baina Nafarroako Ameskoa, Allin eta inguruko ibarretan ugariak dira -ano / -ao (> -au), -o (aurrean i duenean) bukaera duten herri, despoblaturak, eta dermio-izenak, nahiz Lanan *Gastiain* dugun eta Burundan *Urdiain* (baina *Torrano* / *Dorrao*, *Mundiñano* / *Mundañu*, *Nenau* Ergoienean, azkeneko biak despoblatuak). Hona hemen horietako batzuk: *Baquedano* / *Bakedao*, *Gollano* / *Gollao*, *Barindano*, *Galdeano* / *Galdio*, *Amillano* / *Amillao*, *Arbinaucozocoa* (Ekala, 1686), *Dindaubarrena* (Gollao, 1727, 1728), *Erenzaucogegua* (Aranaratxe-Eulate, 1686, 1711), *Erenzaucogezea* (Aranaratxe-Eulate, 1686), *Gomizau*, *Gomizaua*, *Gomizaubidea*, *Gomizausacana* (San Martin, 1668tik aurrera), *Malquizaucogea* (Bakedao / Gollao, 1725), *Zernau(a)*, *Zernaubarrena*, *Zernaugaina*, *Zernaugibela* (Artatza, 1699tik aitzina), *Ziricau* (Barindano, 1719), *Çimillano* (Arbeitz, 1576), *Guerano* (Deierriko despoblaturak, 1554), *Catinau*, *Çatinau* (Errezu, 1550, 1567), *Çurbao ondo* (Errezu, 1550)...

Halaber, ez dugu uste Lapuentek biltzen dituen *Ulaternaba* eta *Eulatenaba*-ren azpian (*E)ulate*-ren-*aoa* dugunik, ongi dokumentaturak dagoen *Eulatedermaua* baizik. Honetaz ikus beherago dioguna eta gure "Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenak", *Euskera*, 38. zkia., 1993-2, 329-347.

4. "Toponimia amescoana" (TA), *FLV*, 21, 1975, 393-410.

5. Lehen osagaiaren bukaerako -a, alabaina, elkarketan joateari zor dakioke. Nolanahi ere den, garbi dago Iñaki Seguiolak (NTA, 268. orrialdeko 12. oinoharra) eta Koldo Zuazok AE, 26. orrialdea) gai honetaz agertzen dituzten zalantzak alde bat utzi behar direla.

6. Ikus López de Guereñuren *Toponimia Alavesa Seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989, eta Koldo Zuazoren aipatu lana.

7. José María Satrustegi, "Textos salacencos del año 1780", *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, bi ale, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 1023-1043.

8. José Estornés Lasa, "Zoilo'ren uzta. La cosecha de Zoilo", *FLV*, 45, 1985, 31-93. Guk geronek ere *Muskildako Amáberjinará*, *áduanará*, *uskárará*-ren moduko formak bildu genituen mende honen hasieran sortutako Sebero Azkoiti oronztarraren ahotik.

aurkitzen dugu aurrenekoz<sup>9</sup> -1680an berriz azaltzen zaigu<sup>10</sup> -, hots, toki-izenek ia bi mende aurrerago joateko bide ematen digute: Otsagabian *peco landara* -'beheko landa', 'la vega de abajo' (*La Landa Baja* 1647an<sup>11</sup>)- dugu emandako lehen datan, eta Ihaurrietan 1680an *Lezaldeco meacara* eta *Leyzaldeco meacara*, hau da, jatorriz 'lezearen hurbileko mehaka' edo 'Lezaldea aurkientzako mehaka'.

Hizkuntzaren diakronia hobeki ezagutzeko toponimiak eskaintzen digun beste lekuko polit bat euskara oraindik bizirik dagoen Ultzamako Larraintzar eta Lizasoren arteko elkarrekikoan (fazerian) zegoen *Garayco larrearequin; goyco berroen vitartea* dugu, zoritxarrez tarteko puntuaketak -aski anarkikoa izaten da hau maiz- eta behin bakarrik opatu izanak seguritatez mintzatzea galerazten diguten arren ('garaiko larrearen eta goiko berroen bitartea' edo dateke). Hau Joseba Lakarrak «koordinazio sozietatiboa» deitu duenaren barruan koka liteke<sup>12</sup>, toki-izena erabat argia balitz, eta bizkaieraz eta gipuzkeraz ez ezik nafarreraz ere ibili dela frogatuko luke.

Toponimian ugariak ohi diren erlatiboan oinarritutako toki-izenek, bestalde, lekuan lekuko euskara mendebaldekoa edo (erdialde-) ekialdekoa zen ikusteko aukera ematen digute. Erraterako, gorago aipatu dugun Nafarroako mendebaldean oso ugariak dira *-dana*, *-zana*, *-dirana*-ren moduko erlatiboak dituzten toki-izenak, eta ez bakarrik Ameskuan, honen azpian dagoen Lanan eta gainean dauden Burundan (*Andrea galdu zan erreka, Gizona hil zaneke pagoa, Otsoa hil zaneke bidea*)<sup>13</sup> eta Ergoienerrian (*Ahuntzak jeixten diraneko zelaia, Andres bota zaneke barga, Diegoren karroa bota zana...*)<sup>14</sup> ere arruntak baitira. Arakilen, aldiz, *dena* aurkitzen dugu (*Ganbeladenea, Gorostididena, Txaraka txikitzen dena, Ura sortzen dena...*)<sup>15</sup>, Iruñerrian eta bestetan bezala (Kokoerrirako ikus Jimeno Juríoren lanak)<sup>16</sup>.

García de Albizuk Amekoarako adibide mordoxka ematen du<sup>17</sup>, baina gehiago ere badira haran honetan; Lanan ere badira gutxi batzuk: *Curuzango eguia* (< *kurutzeta* + *dan* + *-ko* + *hegia*, Aranaratxe, 1711)<sup>18</sup>, *Ecalarabideco*

9. PR-Agoitz, 13. k-bis. Bernat Etxeparek ere badarabil, behin: "Hanbat ere handi tuzu, ezin erran nitzakezu; / Egiara baziniaki, urrikari nangidizu", *Olerkiak*, Txertoa, Donostia, 1978, 128. Le-trabeltza gurea da.

10. PR-Otsagabia, 4. k., 7. zkia.

11. "...en la parte llamada en la Landa Baja", PR-Otsagabia, 2. k., 1647, 7.

12. "Bizkaieraren lekua beste euskalkien artean, iraganeko garaietan", *Bizkaieraren Lekua Gaur*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992, 15-34. Autore honek aipatzen ez duen Kardaberatzek ere badu honelako koordinazioaren bat: "Zuk zure balio andiaz arequin nere artean bitarteco gozagarri izan bear dezu", *Ondo Ilcen eta Ondo Ilcen Laguntceco Egercioac*, Tolosa, 1816, 87. or. Lehen argitarapena Iruñean egin zen, 1762an, Villasantek HLV-ko 162. orrialdean dioenez.

13. *NTEM-IX*, 33, 96 eta 53, hurrenez hurren.

14. *NTEM-VIII*, 65, 30 eta 51.

15. *NTEM-XII*, 142, 143, 165 eta 166.

16. Nafarroa gehiengan *dena* mota da nagusi, ez *dana*. Iraganaldian oinarritutako toponimoak ere opatzen ditugu, nahiz gutxiagotan. Cf., adibidez, Bakaikuko 1713ko *Abadealsasuaerorizaneozuloa* (ikus gure "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker-7, 619-645) edo Etsaingo 1641eko *Emasteilcena*, jatorriz 'emakumea hil zena' seguraski, PR-Uharte-Egues, 41. k.

17. Ikus Balbino García de Albizuren "La dufijación «-dana» y «-dirana» en la Toponimia de Ameskua", *FLV*, 65, 1994, 136-159.

18. PR-Artabia, 20. k. Honela dio agiriak: "la una pieza...en el (termino) que llaman Curuzango eguia...tte al Camino que se ba a Curuzadana".

*curuzarria dana* (Eulate, 1726)<sup>19</sup>, *Elorriandia dana* (Aranaratxe, 1687)<sup>20</sup>, *Uso-acedatenduena* (San Martin, 1702)<sup>21</sup>, *Mayazadana*, *Maiazadana* (San Martin, 1703)<sup>22</sup>, *Oialacicuztendirana(c)* (Zudairi, 1687)<sup>23</sup>, *Zufiadana* (Gollao, 1726)<sup>24</sup>, *Aiza dana* (Galbarra, 1691)<sup>25</sup>, *Azpila dana* (Galbarra, 1700)<sup>26</sup>, *Labiadanpea*, *Labiadanpeco esquina*, *Labiadanpeabidea* (Narkue, 1686, 1695 eta 1700)<sup>27</sup>.

Nafarroako ekialdean berriz Txillardegik, Iparraldeko euskalkiak aipagai dituela, erdarari leporatzen dizkion *bait*-en bidezko erlatiboetan oinarritu toponimoak opatzen ditugu, behin baino gehiagotan. Honela mintzo da gai honetaz gramatikari donostiarrak:

“Iparraldeko euskalkietan, eta erdararen eraginez itxura denez (ikus joskera, esate baterako), ba dago beste errelatibo mota bat «bait-» aurrizkiak (...)”<sup>28</sup>

Guk ez dakigu seguru *bait*-dun erlatibo horiek erdararen eraginari leporatu behar zaizkion, baina bai eragin hau zalantzan jar daitekeela. Izan ere, ekialdekotzat jo behar den erabilera hau ez da batere berria, toponimia leku-ko: *Espelea bayta*, *Espelabayta* (< *ezpela* + *bait-* + *da*, Meotz, Longida, 1591<sup>29</sup> eta 1611<sup>30</sup>), *Udarea bayta* (Idoate, Itzagaondoa, 1592), *Cugarra payta* (< *zugarra* + *bait-* + *da* edo agian *zugarrak* + *baita*<sup>31</sup>, Mendiorotz, Lizoainibar, 1594), *Ezpelçeco çugarrapayta* (Idoate, 1605)<sup>32</sup>, *Erleabaitaco alorra* (Xaberrri, Longida, 1631)<sup>33</sup>, *Elorriabayta* (Orbako Leotz herrian, 1634an), *Arizabaitacoa* (Garaioa, Aezkoa, 1783), *Gurbeabaita*, *Pasacavaita* (< *pasaka* edo

19. PR-Artabia, 23. k-bis.

20. Ib., 4. k.

21. PR-Jaitz, 155. k. Ez dakigu singularra ('usoak edaten duen(toki)a') edo plurala ('usoek edaten duten(toki)a') den.

22. PR-Artabia, 18. k. García de Albizuk *Macazadana* biltzen du; aipatutako lana, 150.

23. Ib., 4. k. “Una pieça...sita en oialac ycuztendirana”; García de Albizuk *Oyalaz ycuztendirana* biltzen du, baina garbi dago ‘oihalak garbitzen diren tokiak’ dugula, eta beraz oinarrian «oialac» dagoela. Autore berak dakarren Artatzako *Sorisidana-k Saroisidana* behar du, hots, eta toki -izena normalizatuz gero, *Saroiçsiadana* edo *Saroiçsiadana* (< *sarohe*, *saroi* + *itsia* edo *ixia* + *dana*). Cf. “otra pieça...en los teros. (términos) de Artaza y en Saroiçsiadana tte. (teniente) a zequia y al Camino del molino”, PR-Artabia, 23. k-bis. Aranaratxeko *Zumatana Zumadana* eta *Zumeadana* moduan ere agertzen zaigu, 1687 eta 1688 urteetan (PR-Artabia, 4. k.).

24. Ib., 23. k. García de Albizuren *Zuficoadana* bera dateke. Ondarreko hau Gollao ez ezik Bakedaon ere azaltzen zaigu (PR-Artabia, 18. k., 1701).

25. Ib., 6. k.

26. Ib., 5. k.

27. Ib., 3., 8. eta 5. karpetak. Irudi duen bezala osagarriak *labea* + *dan* (*da* + *-n*) + *pe* badira berderen. Biloriako *Otsadarauna*, *Otsadaraunbarrena*, *Otsadaraungoiena* eta *Otsadarauntxipia*-n -forma normalizatuak ematen ditugu- agian *otsa-* (< *otso*) edo *otsoa-* + *dagoana* dituzkegu, itxuragabetuak.

28. -*Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbo, 1979, 134. Erlatibo mota hau Iparraldean ez ezik Nafarroan ere aski zabaldua dago, eta lehen orain baino aise zabalduago zegoen, nafar autore «klasikoak» -Berriain, Elizalde, Elkanoko Lizarraga-, testu zaharrak -Ondarrak, Satrustegik, Knörrek eta bestek argitaratutakoak- eta toponimia frogak -(honetaz ikus gure “Toponimia, dialektologiaren lagungarri” lana, 639-640). Erronkarierez, zaraitzueraz, aezkeraz eta hegoaldeko goi-nafarreraz erabili edo erabiltzen da, eta Bonapartek iparraldeko goi-nafarrera deitu zuenaren ekialdeko barietateetan ere bai (Ultzama, Atetz, Baztan, Bortzerriak, Malerreka...).

29. Ikus gure *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez* (EAEATB), Euskaltzaindia, Morentin, 1994, 1058-1059.

30. PR-Agoitz, 13. k-bis.

31. Badaiteke, *dena*-rekin inoiz edo behin gertatzen den bezala (ikus *NTEM-XII*, 143-144), *baita* ere noiz edo noiz elementu ihartutzat hartu izana izatea.

32. PR-Iruñea, 32. k-I.

33. PR-Agoitz, 19. k., 108 org.

*pa(t)xaka + bait- + da*; cf. Inbuluzketako 1618ko *Pasaca denecoa*<sup>34</sup>), *Arteabasta* (sic, < *Artea + bait- + da*), *Lizarrabaita* (Lusarreta, Artzibar, 1788<sup>35</sup>)...

Testuetan ere goiz-goizetik edireten dugu *bait*-en bidezko erlatiboa; Ber-nat Etxeparekok behin baino gehiagotan ibiltzen du. Cf. adibide hau:

“Egun hartan iuge date mundu ooren iabia / **Baytu** ooren gaynian potes-tate handia / Acusari vera date eta conciencia / Beqhatu oro publicoqui agueri-co orduyan”

Letra beltzez idatzi dugun horretaz honela dio oinohar batean Patxi Al-tuna euskaltzainak:

“271. baytu: bertsoaren hasieran bitxi samarra irudi dakiok norbaiti, baina ez ahantz lehen esana: bait- antzineko idazleengan erlatibo soila da maiz, hemen bezala...”<sup>36</sup>

Leizarragak ere frankotan ibiltzen du. Cf., mostra gisa, honako hauek:

“Baina ethorriren dirade egunac edequiren **baitzaye** ezcondua eta orduan barur **eguiñen baituqueite**”<sup>37</sup>

“Baina nor da haur, haiceac eta vra **manatzen baititu** eta **obeditzen baitu-te?**”<sup>38</sup>

Haranederrek lehena *-(e)n*-dun erlatibo baten bidez itzultzen du, baina bigarrenean *bait*- darabil:

“Bainan ethorrico da dembora esposa **khenduco çayoena** eta orduan dire barurtuco”<sup>39</sup>

“Nor othe da hau? haiceei eta itsasoari **manatcen baidaroe** eta hec **obedit-cen baidute**”<sup>40</sup>

Axularrek, Tartasek eta bestek ere ibiltzen dute Iparraldean, eta hemen er-latiboaren azterketa sakona egiteko asmorik ez dugun arren, garbi erran dai-tekeela uste dugu *bait*-en bidezko erlatiboa euskal testu klasikoak bezain za-harra dela, eta ugaria gainera.

Nafarroako idazleen lanetan eta testu zaharretan ere aurkitzen dugu, txi-tean-pitean. Ikus, adibidez, Beriainen hauek:

“*Guero arcendu Alba, bayta eliçaco atorra (...)*”

“*...eta confessaceco, vrriquimentu, eta damutasuna badu vere becatu eguiñes bear den beçala, deycen bayta contricioa (...)*”<sup>41</sup>

Muzkiko Francisco Elizalde ere ibiltzen ditu honelakoak<sup>42</sup> eta zer erra-nik ez Lizarraga Elkanokoak. Nafarreraz idatzitako testu zaharretan ere fran-ko azaltzen da. Ikus, erraterako, honako hau:

“Bule da privilegio generosoat, **conceditzen baitu** Aite Sanduec Españeco Erreinu, eta Señorioegui, eta gure Erregueari burue den becela”<sup>43</sup>

Toponimiara itzuliz, azpimarratu behar da aski ekialdekotzat jo daiteke-en Nafarroako eskualde zabal batean ez dela *bait*-dun leku-izenik bat ere

34. PR-Egues-Uharte, 39. k.

35. PR-Auritz, 42. k.

36. *Linguae vasconum primitiae*, edizio kritikoa, Mensajero, Bilbo, 1980, 54.

37. *Testamentu Berria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 15. org. Letra beltza gurea da.

38. Ib., 117.

39. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Patxi Altunak paratua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 21.

40. Ib., 128.

41. *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 1621, 11 eta 28. Letra beltza gurea da.

42. Ikus gure “Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*”, *FLV*, 65, 1994, 7-39 (32).

43. Francisco Ondarra, “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”, *FLV*, 57, 1991, 131-168 (164).

Letra beltza gurea da.

agertzen, edo baten bat agertzen bada huskeria dela *den*-dunen aldean, baita testuei esker bertako hizkeran *bait*- oso arrunta zela dakigun alderdietan ere (Eguesibarren, kasu). Testuen eta toponimiaren arteko harremanak hobeki aztertu behar dira, baina edonola ere badirudi leku-izenetan *bait*- nagusi azaltzen den eskualdeko hizkeran honelako erlatiboek oso ugariak izan behar zutela edo dutela, bestela zaila baita azaltzea zergatik agertzen diren Nafarroako ekialdeko alderdi honetan (Longida, Urraulgoiti, Aezkoa...) eta ez hizkera mintzatuan indarrean dagoen edo egon den -euskara galdu aitzinetik- beste ibar batzuetan. Azterkizun dago, halaber, bi erlatibo motak dokumentatzen diren haranetan bakoitzak duen edozuen maiztasuna.

Orain, eta lantxo honen izenburuan diogunari jarraikiz, Artaxonako jabego genitiboaz arduratuko gara, José María Jimeno Juríoren *Artajona. Toponimia Histórica* lan argitaragabetik ateratako datuetan oinarriturik. Herri honetako euskararen ezagutza zuzenik ez badugu ere, Bonaparteri esker bada-kigu Artaxonarekin ia muga egiten duen Garesko euskara nolakoa zen, fonetika, hiztegi eta morfologiaren aldetik beregainki.

Morfologiaren alorrean bada, Artaxonako toponimian, azpimarratzekoa eta nabarmentzekoa den kontu bat: jabego genitiboaren bukaera. Euskaldun izan diren inguruko bailara eta herrietan ez bezala, Artaxonan kasu honen bukaera zaharragokotzat aitortu behar bide den sudurkaririk gabeko aldaera izan dela garbiro ageri da Jimeno Juríok bildu dituen datu ugarietan, inoiz edo behin, euskara galdua zegoen edo galtzen ari zen XIX. mendeko lekukotan -lehenagoko batzuetan ere bai-, sudurkaridun aldaera ere azaltzen den arren, aitzinago ikusteko aukera izanen dugunez. Bernat Etxeparek gutxienez behin -izenordainetatik kanpo, jakina- darabilen -*n*-rik gabeko aldaeraren inguruan<sup>44</sup> honela mintzo da Mitxelena:

“La distribución de las variantes con o sin *-n* de la desinencia de genitivo indica que *-re* es la más antigua, ya que, en época moderna, su distribución está limitada a pronombres personales, con los cuales forma posesivos (*gu-re* ‘nuestro’, etc.), a demostrativos y, con nombres en general, a la postposición *-(r)ekin*, *-(r)eki*. Ahora tenemos en documentos medievales *Lope Jaun Ortire semea* ‘Lope Ortiz’, Irache, 1125, cf. *FLV* 1 (1969), 10 ss., y en Leire, 1110, *Orcire çorita*, nombre que, en 1284, *Vasc. med.*, p. 44, se repite en *Orçiren çorita çaharra* y *Orçiren çorita soroa*, seles de Roncesvalles (...). No queda excluido, a mi entender, que la nasal haya sido omitida en la escritura, pero, en todo caso, estos testimonios favorecen la presunción de mayor antigüedad de *-re*”<sup>45</sup>

Artaxonako datuak dokumentatzen diren garai bertsuan herri honen inguruko bailaretan sudurkaridun aldaera ibiltzen zela honako lekuko hauek baiesten digute:

Artaxonatik hurbil samar dagoen **Oteitza-Iguzkitzan** XVI. mendean *-(r)en* zen mugagabeko (izen bereziekiko) jabego genitiboaren ondarkia, 1574ko *Mariaren gortea*<sup>46</sup> eta 1578ko *Pacoalengortea* (sic)<sup>47</sup> froga; **Mañerui-**

44. “Mossen Bernat Echaparere cantuya” olerki izenburuan hain zuzen ere (letra beltza gurea da). Honela dio P. Altuna argitarapenaren prestatzaileak oinohar ugarietako batean: “*Echeparere. -n* gabeko genitibo zaharra dirudi, ez inprenta hutsa”, *Linguae*, 228.

45. *Fonética Histórica Vasca*, Donostia, 1977, 504-505.

46. PR-Zirauki, 2. k.

47. Ib., 2. k.



barren *Gomeztarrengortea* (*Gomez* + *-tar* gentilizioa + *gortea*) genuen Zirauki herrian 1572an<sup>48</sup>.

**Garesen XIX.** mendean *-(e)n*, *-an*, *-en* laburtua dugu, Bonaparteren datuek erakusten duten bezala<sup>49</sup>. **Orba** ibarrean ere sudurkaridun aldaera edireten dugu toponimian; konparaziorako, *Don Juanen Barrancoa* dugu Uzkitan 1823an<sup>50</sup> (ikus aitzinago dioguna).

**Ibargoitin** *-aren* bide genuen singularrean (*Osauzenarena*, Ibarzabaltza, 1694)<sup>51</sup> eta *-en* pluralean (*Hurbien ertea*, Sengaritz, 1694)<sup>52</sup>. Dena den, kontuan hartu beharra dago hizkuntza zerbait bizia dela eta lekutik lekura ez ezik mende batetik bestera ere aldatzen dela, Izkoko XVIII. mendearen bukaerako *-ain* singularrak iradokitzen digun bezala: *Apezainverropea* (1791), *Apezain verropea* (1792; 'apezaren labakiaren azpiko aldea' edo, jatorriz)<sup>53</sup>. Guztiarekin ere, *-aren* > *-ain* (eta *-aren* > *-an*) aldaketa benetan XVII-XVIII. mendeetan burutu zen jakiteko testuak ere aztertu behar genituzke, toponimia ez ezik<sup>54</sup>; Mezkititzen *-ain* 1788rako aurkitzen dugu *Sn Miguelgo Ermitain hondoco alorra*<sup>55</sup> toki-izenean.

Artaxonan datu hauek bildu ditu Jimeno Juríok:

**Aitagome(t)zarena:** *Aitagomeçarena* ageri da 1338an, *Aytamecarana* 1532an, *Aytamuarana* 1591n, baina *Aytameçare*, artikulurik gabe irudiz eta desitxuratuxea, 1595ean.

**Antxapele gortea:** toponimo honen osagarriak XIV. mendean Artaxonan bizi zen **Sancho Chapele-en** izenaren euskarazko aldaera den **Antso** edo **Antxo** (hipokoristikoa bigarren hau) **Txapel**, genitiboaren mugagabeko ondarkia den **-e** (kontsonante ondoan), **gorte** 'korralea' eta artikulua ditugu. Bat ez gainerako lekuko guztiak sudurkaririk gabeko aldaeraren alde mintzo dira; kontra mintzo datekeena berandukoa da (XVIII. mendearen bigarren erdiko), eta beraz kasu honetan, beste askotan bezala, ez dago zalantza anitzetarako biderik: *Anchapele gortea* 1594an, *Anchapale gortea* 1587an, *Achapalagortea* 1589an, *Anchapela gortea* 1598an, *Ansabele gortea* 1603an eta *Chapelangortea* 1759an.

**Antsare gortea:** toponimo honen bi lekuko besterik ez ditugu **-biak** sudurkaririk gabeak-, baina etimologiak argia irudi du: **Antsa** 'Sancha', **-re** genitiboaren ondarkia, **gorte** 'korralea' gehi artikulua.

48. Ib., 2. k.

49. "Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi", Patxi Ondarrak argitaratua, *FLV*, 39, 1982, 133-228. Ikus, orobat, Garesko euskaraz idatzitako "Le Cantique de Trois Enfants" delakoa, Bonaparte, *Opera Omnia Vasconice-I*, Euskaltzaindia, Bilbo, 101.

50. PR-Oibar, 100. k.

51. PR-Elo, 12. k. "Otra (pieza) en el camino de Monreal q. (que) llaman Osauzenarena".

52. Ib. "Otra pieza...en hurbien ertea afronta con dos regachos".

53. Ib., 44. eta 45. karpetak, hurrenez hurren.

54. Testuek ere, ezagutzen ditugun neurrian, pausoa XVIII. mendean burutu zela salatzen dutela dirudi. Ikus Beriain, Elkanoko Lizarraga eta bestez gure *EAEATB*-eko 185. oinoharreen dioguna. Muzkiko Francisco Elizaldek ondarki osoa ibiltzen du, baina behin *-an* du (Garesen, Oltzan eta Goñerrian bezala, ez *-ain*); Lekuonak argitaratu zituen herri horretako XVIII. mendeko testuetan aldaera laburtua ere maiztasun handikoa da. Ikus gure "Elizalderen Apezendaco dotrina...", 10 eta 22-23 orrialdeak.

55. PR-Auritz, 42. k.

**Arotzare gortea:** kasu honetan sudurkaridun ondarkia duen lekukotasun bakarra 1598ko *Arocaengortea* da. Beste bietan *-re* dugu: *Aroçare gortea* (1568), *Arozaregortea* (1713).

**Azearitze portalea:** bitan dokumentatzen du Jimeno Juríok; lehen lekukotasunean elkarketa bide dugu (*Aciariz portalea*, 1528), bigarreanean, antza duenez, genitiboaren ondarkia ageri zaigun bitartean (*Aciarizce portalea*). Osagarriak, erran beharrik ez legoke, **Azeari** pertsona izenaren patronimikoa den **Azearitz** (XI. edo XII. mendeetan *iaun Azari* edo *Azeri* eta *Azari Gurena* izeneko lagunak bizi ziren Artaxonan<sup>56</sup>; XVI. menderako *Jaunazeritzea* Artaxonako toki-izen bihurtua zen. Ikus aurrerago dioguna), *-e* genitiboaren ondarkia, **portale** ‘harresiko atea’ gehi artikulua dira.

**Errabiare gortea:** hemen izengoiti batetik heldu bide den **Errabia** antroponimoa (*Garcia Rabia* bizi zen Artaxonan XI. edo XII. mendean<sup>57</sup>; cf., gainera, *Miquel Ravia*, *Don Peidro Ravia* 1254an<sup>58</sup>, *Lop Amurru* Iratzen 1283an<sup>59</sup>), genitiboaren mugagabeko *-re* ondarkia, **gorte** eta artikulua ditugu.

Lekukotasun hauek biltzen ditu Jimeno Juríok: *Errabiare gortea*, *Rabiare gortea* 1593an, *Rabiaregortea* 1822an, *Rabiarengortea* urte berean. Hortaz, eta ikusten den moduan, sudurkaridun aldakia Artaxonako euskara maldan behera abiatua zenean edo erabat erroiztua zegoenean azaltzen da oraingo honetan, ez lehenago. Kasu berean dago 1598an *Garcia Saroya* itxurapean eta 1822an *Garciaren sarroya* bezala dokumentatzen den toki-izena (ikus hurrengo sarrera).

**Gar(t)ziaren sarioa:** bitan baizik ez da azaltzen leku-izen hau dokumentazioan (ikus aurreko sarrera); azken elementua **sarioa** ‘sarohea’ dela garbi dago, eta lehenaren oinarria **Gar(t)zia** antroponimoa dela ere bai. Biok lotzeko elkarketa hobetsi da XVI. mendeko lekukotasunean eta sudurkaridun ondarkia (*-ren*) 1822koan.

**Gelaren zelaia:** toponimo honen lehen osagarria behin ez gainerako guztietan amaieran *-n* duela opatzen dugu, baina ez da zeharo segurua, gure ustean, oraingoan jabego genitiboaren ondarkia dugun: *Guelaren celaya*, 1529, *Gueraren celaya*, *Gueraren celay* (1541), *Guelare çelaya* (1554), *Gueren çelaya* (1579)... Egun *Genzeláia* erraten da, Jimeno Juríoren arabera.

**Gile gortea**, **Gile olibadia:** hemen, berriz ere, antroponimoa (**Gil**) + *-e* genitiboa + izena (**gorte** edo **olibadi**) + artikulua ditugu, oker ez bagaude. 1556ko *Gile olibadia*-ren aldamenen elkarketa bidezko *Gil oliuadia*-ren modukoak ditugu hurrengo mendeetan, eta egungo aldaera itxuragabetuek ere (*Jirolibadía*, *Julibadía*...) elkarketaren jarraitzaile eta ondore direla dirudi. Izenburuan paratu dugun lehen leku-izenaren kasuan, ordea, gauzak diferenteak dira: *Gille gortea* -bustidura eta guzti- dugu 1559an, eta ondarkidun soluzioa da arruntena, 1822ko *Gilgortea*-n izan ezik. Egun *Jilingorrea* erraten da, agian sudurkaridun \**Gilen gorrea* batetik.

56. José María Lacarra, *Vasconia Medieval. Historia y Filología (VM)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1957, 47.

57. Ib.

58. Santos A. García Larragueta, *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalem. Siglos XII-XIII*, bi ale, PV, Iruñea, 1957, 113. agiria.

59. VM, 39.



**Jaunazeritzea:** honen osagarriak Erdi Aroko dokumentazioan urria ez den **jaun** elementu alboratua, eta **Aze(a)ri** izenaren **Aze(a)ritz** patronimikoa ditugu (ikus **Azearitze portalea** dela-eta dioguna). Bukaeran -e genitiboa dugula dirudi, gehi artikulua. Nolanahi ere, eta honen frogarik ez dugun arren, ezin da baztertu bukaerako -ea hori beste bideren batetik sortu delako ustea.

**Juanare (?) gortea:** lehen elementuaren bukaera, hemen gehien interesatzen zaiguna, ez da garbi-garbia.

**Juandegorrinzelai:** dokumentazioa argia da; XVI. mendeko lekukotasun guztietan izenburutako eman dugun aldaera hori -bestela idatzirik bada ere-aurkitzen dugu. XVII. eta XVIII. mendeetan Jimeno Juríok bildu dituen bi lekukotasunetan -en dugu: *Juan de Gorren zelaya* (1676) eta *Gorrenzelaia* (1765). Lanaren egileak dioenez, *Johannes Gorria* larragatarra Artaxonan ageri zaigu 1179. urtean, hamarrenak zirela-eta bertako apeztegiarekin (kabil-doarekin) izandako auziaren ondorioz emaniko sententziaren lekukotzat.

Kasu honetan, itxura guztien arabera, -n laburtua dugu genitiboaren ondarkitza, ez espero genuen -re. Uxuen ere, alderdian ongi dokumentaturik dagoen -(r)en- ez gainera (cf. Epaizko *Pikeroaren berroa*<sup>60</sup>), -n laburtua dugu Artaxonako izenaren testuinguru berean (*Petringesala* toponimoan).

**Kastañare gortea:** toki-izen honen osagaiak **Kastañ(a)** antroponimoa (*Eluira Castayn* bizi zen Artaxonan 1330ean, *Miguel Castain* 1368an)<sup>61</sup>, -(a)re -ondarki honen bokala dela-eta cf. *Arrapat* deitura baina *Rapatate orre ondo* eta *Coscorteregortea* / *Coscote corralea* (ikus **Rapatateorreondo** eta **Koskortere gortea** sarrerak)-, **gor**te eta artikulua dira. Artaxonako ikerleak bi lekuko biltzen ditu: *Castaynare gor*tea (1564) eta *Kastañare gor*tea (1593).

**Koskortere gor**tea: 1593an ageri den *Coscorteregortea*-n ezezaguna zaigun **Koskorte** antroponimoa, genitiboaren mugagabeko ondarkia, **gor**te eta artikulua dituzkegu. Gauzak, hala ere, ez daude guk nahi bezain garbi. Cf. el-karketa bidezkoa irudi duen 1559ko *Coscote corralea* eta aski nahasgarria den 1612ko *Cortele corralea*.

**Loperen zazua:** lau aldiz dokumentatu du Artaxonako ikertzaileak toponimo hau, beti XVI. mendean. Hirutan -ren du ondarkitza, eta behin -re (1578ko *Loperecacia*). Osagarriak, bistan denez, **Lope** pertsona-izena, -re(n) genitiboaren ondarkia, **zazu** 'saso' eta artikulua dira.

**Mariare gor**tea: kasu honetan, izenburutako -re-dun aldaera hautetsi badugu ere, Jimeno Juríok bildutako lekukotasunetan forma bata bestea bezanbat aldiz opatzen dugu, aldaki laburrak maiz euskaraz ezaguna den -r- > -d- aldaketa aurkezten duela, seguru aski morfologiak ere -izena + de + deitura egiturak, alegia- lagundurik. Cf., ildo beretik, *Pasquale gor*tea (1595) / *Pasqual de Gor*tea (1734).

**Marimigeleze gor**tea: XVI. mendeko hiru lekukoetan argi ikusten da toki-izen honen oinarrian **Marimigelez** antroponimoa dugula, hau da, **Maria** arruntaren forma apokopatua den **Mari(-)** eta **Migel**-en patronimikoa den **Migelez**. Kontsonantearen ondoko -e genitiboaren mugagabeko ondarkia dugu; azken osagarriak **gor**te ezaguna eta artikulua dira.

60. EAEATB, 75.

61. Juan Carrasco, *La Población de Navarra en el siglo XIV (LPN)*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruña, 1973, 301 eta 438.

**Mateare gortea:** behin bakarrik azaltzen da, 1581ean. Osagaiak **Matea** emazteki izena, genitiboaren **-re** ondarkia, **gor**te eta artikulua ditugu.

**Moseportalea:** behin bakarrik dokumentatzen da toki-izen hau, 1543. urtean. Azken osagaia **portalea** dela garbi dago; lehena antroponimo bat izan daiteke (cf. Chourioaren **Moise** 'Moisés'<sup>62</sup>, Prai Bartolomeren **Moisec** ergatiboa<sup>63</sup> eta bereziki Larreguyren **Mosen** genitiboa, **Moisec** ergatiboa eta **Moysi** datiboa<sup>64</sup>), **mosen** begiramenezko elementu alboratuaren aldaera edo itxuraldaketa, edo beste zerbait. **Mos** + **-e** zatiketa ere egin liteke, apika (cf. Larreguy), baina kontua, guretako, ez dago batere garbi.

**Olatare gortea:** toponimo honetan **Olata** antroponimoa *-Johan Olata, Martin Olata* eta *Sancho Olata* bizi ziren Artaxonan 1330ean<sup>65</sup>-, genitiboaren **-re** ondarkia, **gor**te eta artikulua ditugu.

**Paskuale gortea:** XVI. mendekoak diren toki-izen honen aurreneko bi lekukotasunetan **-le** dugu bukaeran; XVIII. mendean, berriz, *Pasqualagor*tea itxuragabetuxea ageri zaigu 1717an, eta *Pasqual de Gor*tea analogikoa 1734an. 1820rako euskara franko edo erabat galdua zegoen Artaxonan, eta hori de-la-eta urte horretako *Pascoalangor*tea ez zaigu sobera fidagarri iruditzen. Oinarrian, hortaz, **Paskual** antroponimoa, **-e** genitiboaren ondarkia eta **gor**tea genituela erran daiteke.

**Rapatoreorreondoa:** Jimeno Juriok 1587an dokumentatzen duen *Rapatore orre ondo*a-ren azpian, gure ustez, **Arrapat** «deitura»-ren erdarazko transkribaketa den **Rapat** dugu *-Sancho* eta *Pascoal Arrapat* bizi ziren Artaxonan 1330ean<sup>66</sup>; *Arrapatiexondoa* ere badugu, 1524an-, genitiboaren ondarkia, **dor**re agian eta **ondo**a (**Dorr(e)ondo**a toponimoa oso arrunta da, han-hemenka). Oztopo nagusia **Rapatore**-ren tarteko **-a-** da, **Arrapat**-etik abiatuz gero horren beharrik ez bailegoke. Hemen berriro ere gorago ikusi dugun **Kastañare gor**tea-ko arazo bera dugu, honen oinarrian, erran bezala, **Castayn** «deitura» baitago. Oikonimian arruntena alderantzizkoa izaten da, hots, hasieran **Zurgiñarena** zena aurrerago **Zurgiñen(e)a** bilakatzea, adibidez.

**Remone gor**tea: hemen, itxuraz, **Remon** giza-izena, **-e** ondarkia eta **gor**tea ditugu. Seguru asko *\*Erremone gor*tea-ren antzeko zerbait ere izan izanen da.

**Unzabalegor**tea: 1554an *Un-* badugu ere, urte bereko eta geroagoko hiru lekukotasunetan *On-* ageri da. Garbi ez dagoen arren, aurreneko elementua *\*Unzabal* edo *\*Onzabal* antroponimoa dela pentsa genezake, kasu honetan tarteko **-e-** hori genitiboaren morfema litzatekeelarik, baina ez dugu horren segurtasunik, eta **Unzabale** edo **Onzabale** ere interpreta daiteke. Azken osagarria **gor**tea dela dudarik ez dago.

Ondorio moduan, azken puntuari dagokionez, Artaxonan inguruko bailaretan erabiltzen ez zen **-toponimiak** kontu hauen guztien berri jakiteko bide ematen digun heinean **-(a)(r)e** ondarki sudurkarigabea berandu arte era-

62. *Jesu-Christoren Imitacionea*, Baiona, 1780, 185; gu Hordagok 1978an Donostian egindako faksimileaz baliatu gara.

63. *Euscal-errijeetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816; Hordagok 1978an Donostian argitaratu faksimilea ibili dugu.

64. *Testamen Çaharreco eta Berrico Historia*, Baiona, 1775, 22, 165 eta 179. Hordagok 1978an Donostian egindako faksimile erako argitarapenez baliatu gara.

65. *LPN*, 293, 299 eta 301.

66. *LPN*, 295-296.

bili zela erran dezakegu, Jimeno Juríok bildutako datu ugariak frogatzen duten bezala, toki-izen batzuetan *-n*-dun aldaera ere agertzen bada ere. Ez dakigu, dena den, genitiboak artikulua hartzean zehazki zer gertatzen zen, lekuko ia bakarra ematen dugun zerrendako lehena baita, ez dugularik, erraterako, Orban ezagunak ziren (zenbait herritan bederen) *-(a)rena*-dun oikonomorik, Artaxonan, Uxuen bezala, etxeek ez baitzuten aparteko izenik<sup>67</sup>.

## LABURPENEA

Lan honetan toponimiaren eta dialektologiaren arteko harremanez mintzo gara, arreta bereziki *-a-z* bukatzen diren nafar toponimiako izen batzuek artikulua hartzean duten jokamoldean (*-a + a > -ea*, *-a + a > -ara*), erlatiboetan oinarritutako toponimoetan (*dana* mendebaldekoa / *dena* erdialde-ekialdekoa / *baita* ekialdekoa) eta Artaxonako jabego genitiboaren *-(a)(r)e* aldaera itxuraz arkaikoan jartzen dugula. Azken gai hau ikertzeko erabilitako datuak José María Jimeno Juríoren *Artajona. Toponimia Histórica* liburu argitaragabetik atereak dira.

## RESUMEN

En el presente trabajo tratamos de la relación existente entre toponimia y dialectología, prestando especial atención al comportamiento del que ciertos nombres de la toponimia navarra acabados en *-a* hacen muestra cuando reciben el artículo (*-a + a > -ea*, *-a + a > -ara*). Nos ocupamos, así mismo, de los topónimos basados en relativos (occidental *dana* / centro-oriental *dena* / oriental *bait-*) y de la variante *-(a)(r)e* del genitivo posesivo que se documenta en Artajona, un arcaísmo según todas las apariencias. Los datos utilizados para investigar este último tema los hemos sacado de la obra inédita de José María Jimeno Jurío titulada *Artajona. Toponimia Histórica*.

## RÉSUMÉ

Dans le présent travail, nous traitons la relation existant entre la toponymie et la dialectologie, en nous intéressant particulièrement au comportement que certains noms de la toponymie navarraise terminés en *-a* présentent lorsqu'ils reçoivent l'article (*-ata > -ea*, *-a+a > -ara*). Nous nous occupons aussi des toponymes basés sur les relatifs (occidental *dana*/ centre-oriental *dena*/ oriental *bait-*) et de la variante *-(a)(r)e* du génitif possessif que l'on trouve à Artajona, un archaïsme selon toutes les apparences. Les données utilisées dans les recherches de ce dernier thème ont été relevées dans l'oeuvre inédite de José María Jimeno Jurío, intitulée "*Artajona, Toponymie Historique*".

## ABSTRACT

This article deals with the relationship which exists between toponymy and dialectology, with special attention being paid to the behaviour

67. Ikus honetaz *EAEATB* laneko 150. oinoharrean dioguna (81. or.).

shown by certain names in Navarrese toponymy which end in *-a* when they receive the article (*-a+a > -ea, -a+a > -ara*). In the same way, we discuss toponyms based on relatives (western *danal* central-eastern *denal*/eastern *bait-*), and the genitive form *-(a)(r)e*, which is documented in Artajona, and is from all appearances an archaism. The details used to research the latter theme are taken from the unpublished piece by José María Jimeno Jurío entitled “*Artajona, Toponimia Histórica*” (Artajona, Historical Toponymy).